

bidegileak



Mari Karmen Alzueta (1928-1983)

Egilea:

MIKEL UGALDE

Mari Karmen Alzuetaren bila

*S*noiz, katedral erraldoiren bat edota eraikin zahar handiren bat ikusten dugunean, geure buruari hamaika galdera egiten diogu harri eta zur. Nola liteke horrelako eraikina egiteko gauza izatea? Gaur egun garai hartan ez bezalako baliabideak daude, baina nola demontre moldatu ote ziren katedral handi horiek egiteko? Proiektua aurreikusteko, hainbesteko karga zuten harritzarrak harrobitik ekartzeko? Hargin lanak egiteko? Bakoitza zego-kion lekuan jartzearen altxatzeko? Gaur garabi sendoak eta tresneria au-

rreratua erabil daitezke, baina orduan? Azkenean, ondoko ondorioetara iristen gara: «Hau egin zuen giza taldea ez zen makala horrelako lanak burutu ahal izateko».

Eskolarekin antzeko zerbait gertatu da. Orain dela berrogeita hamar urteko eskola-paisaiari erreparatzen badiogu eta, batez ere, egungoarekin alderatzen, alde izugarria dagoela antzemango diogu. Orduan pentsaezina zena gaur egia bihurturik ikusten dugu.



Mari Karmen Alzueta (1928-1983)



Alzueta familiaren argazkia. Ezkerretik eskuinera begiratzuz, behean Arantxa eta Ignacio. Erdian, José Juan, German Mari Karmenen aita, Maria Beneite ama, Maite eta Juana amona. Atzean, berriz, Itziar, Mari Karmen eta German

Garai hartan katedral handi haiek egin zituztenei aitortu izan diegun bezala, «ez dira makalak izan eskolaren eta euskarazko irakaskuntzaren alde ahalegindu izan diren gizon-emakumeak, irakasleak, gurasoak eta herritarrak».

Bakarra izan ez bada ere, horietakoa dugu Mari Karmen Alzueta ondorengo orriotan ikusiko dugunez. Emakume handi baten au-

rrean gaude, bere herriaren zerbitzuan euskaltasunean zintzo, kristautasunean konprometitua eta gizalegean eredu, herri baten historian oso noizean behin sortzen diren horietakoaren aurrez aurre. Hura ezagutzeko zoria izan zutenek miresmena erakusten dute eta esker oneko hitzak baino ez dituzte esaten. Katedralak bezala, hain normaltzat jotzen dugun euskal eskolak bide luze aldapatsua egin behar izan duela ohartuko gara.

Familia

Mari Karmen 1928ko maiatzaren 4an, donostiarrentzat hain gune esanguratsua den Konstituzio Plazan, jaio zen. Haren aita, German, Irurakoa, papergintza lantegiko ugazaba. Ama, Maria Beneite, berriz, donostiarra, nortasun handiko emakumea. Maistra karrera azken urtea Bilbon ikasten egin ondoren, oposizioak prestatu eta lehen gelditu zen lehialdi hartan. Irakaskuntza lanari heldu zion eta urte batzuetan horrela jarraitu zuen ezkondu eta gero familia ugaltzen hasi zen

arte. Irekia eta liberala zen ama Maite alabaren esanetan.

Batez beste familiak ugariagoak ziren garai hartan gaur baino, Alzuetarreanean zazpi seme-alaba izan zituzten. Seme-alaba guztiek izan zuten goi mailako ikasketak egiteko aukera. Familiak haurrak eskola publikoetan eskolatzeko erabakia hartu zuen.

Mari Karmen jaio eta handik 8 urtera, zorigaitzoko gerra lehertu eta familia Amezketa-ra aldatu zen eta gerra bukatu zen arte bertan jarraitu.



Maria Beneite eta German, Mari Karmenen gurasoak. Ama maistra eta aita, berriz, lantegi munduan murgildua



Hona Mari Karmen panpoxa, panpina eskutan duela

Mari Karmen ikasle

Mari Karmen lehen aldian Elbira Zipitria ikastolara joan ohi zen, Donostiako Parte Zaharrean, Kanpanario kalean irekitako ikastolara. Gero, Amezketara aldatu zirenean, bertan ikasten jarraitu ahal izateko, frantses irakasle bat lortu zuten eta harekin aritu ohi ziren anai-arrebak beste lehengusuekin batera.

Amezketan ikasi zuen Mari Karmenek baina gaztelania ere ikastea komeni zitzaiola eta,

Tolosako moja eskolan jarraitu zuen. Lan eta buruhausterik izan zuen erdara hizkuntza gisa menderatzen Maitek. Mari Karmenen ahizpari entzundakoa da ondorengo hau. Han ari omen zen eskolan «Sistema Métrico Decimal» delakoa ikasten. Mari Karmen erne. Halako batean, mojak galdera egin omen zion, esplikatu zezala lehentxeago irakasleari entzuna. Larritu zen Mari Karmen, hitz egin nahi baina ezin, gaztelaniaz ez moldatzen. Hala ere noizbait, ahal zuen moduan adierazi omen zion.



Mari Karmen besotan duela ageri da German. Esanguratsua da aitak alabari zuzentzen dion begiratu maitekorra. Eskuz idatzian ageri denez, Mari Karmenen lehenengo argazkia da



Mari Karmen, Jose Juan eta German sorbaldetan besoak dituela. Aurrean, Itziar ahizpa



Mari Karmen José Juan eta German anaiekin Amezetakako baserri aurrean

—Bistan da bai, bistan da, nik esandakoa ez duzula ikasi —mojak ironiatsu—.

—Bai, nik badakit —erantzun omen zion tinto zuzenean Mari Karmenek—. Amak erakutsita dakit hori guztia. Baina hona erdara ikastera ekarri naute.

Gerora erdara ongi ikasia izango zuen, batxilergoan oso nota onak atera eta gero, Madrila jo zuen goi mailako Kimika ikasketak egitera. Ez zen nolanahiko karrera, emakumezkoek ez baitzuten gisa horretako karre-
rari-
k ikasten, are zailagoa neska batentzat.

Garai hartako emakumezkoen ikasketak mugatuak ziren: maistra lanetarako, bulegoren batean enplegatzeko... Oso bakanak ziren garai hartan Kimika Lizentziatura ikasi ohi zuten emakumeak.

Ikasitakoarekin konforme ez nonbait, Soziologia ikasketak ere egingo zituen geroxeago Leon XIII Institutuan.

Ikasketak burutzeaz gain, pauso erabakigarria eman zuen Mari Karmen gazteak. Kristau gisa erabat konprometitua bizitzeko erabakia hartu zuen eta, handik aurrera bizi osoan eutsi zion kristautasunaren goi-buruari.

Gizartea eraldatzeko gogoz

Mari Karmenen bila abiatu gara eta, dagoeneko, hainbat kontu jakiteko aukera eskaini digu ibilaldi honek. Hobeto ezagutzeko ezaugarriak aipatu baititugu han eta hemen. Hala ere, motz geldituko litzaiguke azalpena kristau izaera eta fede bizitzari tartea eskainiko ez bagenio.

Nolakoa zen Mari Karmenen kristautasuna? Kristautasun sendoa. Horrela aitortzen dute gertutik ezagutu zuten guztiek.

Euskal gizarteaz mintzatzerakoan, aipatu behar dugu 60ko hamarkadan



Unibertsitatean ikasten hasi zen garaiko argazkia

aldaketa handia izan zela demografian, artean, kulturean, pentsamenduan eta baita erlijioan ere. Baziren su eta gar lanean ari ziren kristau ekintzaileak, baserritarren munduan, industrian, arrantzan, zerbitzuetan bete-betean murgilduta kristau gisa bizitzen saiatzen ziren eliztarrak. Egoera berriak kristautasun biziberritua eskatzen zuen.



Batxilergoko 7. mailako kideekin. Erraz antzeman daiteke argazkiaren erdi aldean Mari Karmen

Mari Karmenek jakin zuen Vatikanoko II. kontzilioak aldarrikatutakoari jarraitzen. Pertsonaren baitan kokatzen zuen bere eginbidea, bere osotasunean hazi eta biziko zen gizakia hezi nahi izaten zuen. Gizartean errotutako pertsonaren baitan. Lizeoan bertan, ez zuen erlijioa irakasteko laiko bat ipintzeko inongo eragozpenik izan. Kristau zintzoaren gisara jokatu zuen eta, zintzotasun horrek eraginda hain zuzen, bazekien gizartearen, zientziaren eta kulturaren erlijioarekiko autonomia onartzen.

Madriren Kimika Zientziak estudiatzen aritu eta gero, Salamancan egin zituen hurrengo bi

urteak honako bi eginbideei heltzen zielarik: batetik, kimika alorreko karrera bukatu eta, bestetik Misiolari Sekularren Institutuko kide zenez, bere burua prestatzeari ekin.

Datu zehatzik ez dagoen arren, artean oso gaztea zela, 1948 urte inguruan izan behar zuen, sartu zen aipatu institutuan. Lanari ekin zion eta ez nolanahi. Ourensen denboraldi bat egin eta gero, Madrilera itzultzen da Leon XIII Institutuan Gizarte Zientziak ikasteko asmoz. Gizarte gaiak gogoko zituen. Harreman estuak izan zituen gai hauetan puntako jakintsuak ziren Ricardo Alberdi eta Jose Maria Setienekin.

Institutuko Batzorde Nagusiko buru izendatu zuten. Erakundea eguneratu beharra zegoen, norabidea finkatu, antolaketa sendotu, legez-tatu ahal izateko arauak zehaztu... Bazen zer egina. Erromara hainbat joan-etorri egin behar izan zuen bere 2CV auto zaharrean.

Misiolari Sekularren Institutuak gizartean murgildu eta elizaren zerbitzura bizitzea zuen helburu. Bertako kideak ez ziren, berez, mojak. Gizartean, beste edozeinen mo-



German eta Jose Juan gaineko aldean. Aurrean, Itziar, Maria Beneite eta Mari Karmen

dura lan eginez, ekitaldietan esku hartuz bizi ziren bertako kideak. Malgua zen institutuaren antolaketa. Mari Karmen bertako kide izan zen 1983ko abenduan hil zen arte.

Kristau bizitza eta ikasketak ekintzarekin ondo uztartzen zekien horietakoa genuen Mari Karmen. Donostiara etorri eta Gizarte Laguntzailleen Eskola martxan jar zedin hasieratik ekin zion eta lehen zuzendaria ere bera izango zen. Ez zen ez, txantxetakoa eskola jaioberrian zuzendariak bere gain hartu behar izan zuen zama: irakatsi beharreko gaiak zehaztea, programak finkatzea, irakasle egokiak kontratatzea, ikasleak erakartzea... Nabarmenak izan ziren eskolaren arrakasta eta eragina.



Mari Karmen gaztetxoaren argazkia



Kimika Fakultateko irakasle eta ikaskideekin, laborategian lan egiteko eran jantziak



Santo Tomas Lizeoa abiapuntu

Mari Karmen Alzueta Donostiako Santo Tomas Lizeoaren hauspoa eta bihotza izan da 9 urte luze eta erabakigarrietan. 1969-70eko ikasturtean irakasle lanetan hasi zenez geroztik, bere bizitzako lan ordurik gehienak bertan eman zituen andereño eta zuzendari lanetan.

Garai hartako lizeoa, beste ikastola askoren gisa, hazten zihoan. Mari Karmenek lanari ekin zion garaian, Bizkaia Pasalekuan zegoen haur txikien ikastola. Batxilergoa, berriz, Akademia bailitzan,

ontzat emandako eskola aurrefabrikatu gisa antolatutako estalpeetan. Hurrengo bi ikasturteetan, Urumea ibai ondoan jarraitu zuten haur hezkuntzakoak, eta Mirakontxan alokatutako Jesusen Bihotzeko mojen ikastetxean



Itziar, Arantza eta Mari Karmen ahizpak elkarrekin irribarretsu



Hegazkinetik ateratako bi argazki hauetan, Santo Tomas Lizeoa ikus daiteke. Ezkerrekoan ikus daitekeenez, ikastetxea eraikitzen ari zirela aterata da. Bi argazkiok konparatuz gero, Lizeoa Mari Karmenen garaian zenbat hazi zen antzematen da

garai hartako Oinarrizko Heziketa Orokorrekoak.

Hirurogeita hamargarren hamarkadaren hasiera hartan ez zen nolanahikoa Santo Tomas Lizeoa. 1971 urtean *Zeruko Argia* eginiko elkarrizketan Mari Karmenek berak aitortzen duenez, «etxe honetan aurtengoz bakarrik gaude eta sei urtetatik hamasei urtetarako ikasleak ditugu. Denetara jota 600en bat ikasle dago. Hiru urtetatik sei urtetarakoak berriaz, beste leku batetan daude eta denera 200en bat egiten dute. Beraz Lizeoaren babesean 800en bat ikasle dago. Ez da gutxi. Ba dago zer eginik»¹.

Zuzendari

Lehenago esan bezala, irakasle gisa lanari ekin bazion ere, handik urtebetera zuzendaritzaren ardura hartu zuen bere gain Mari Karmen Alzuetak. Eginbide honetan ere bidea zabaldu behar izan zuen, ez baitzen ikastolen eremuan hainbeste hazitako ikastoletan zuzendaritza esperientzia handiegirik.

Alde batetik, azpiegitura finkatu beharra zegoen. Ikastola hazten ari zen, irakaskuntza era duinean bideratzeko baliabideak ere behar ziren, Bere garaian egin ziren Lizeoko bi eraikuntza nagusiak (1972. eta 1977. urteetan inauguratu zirenak).

Santo Tomas Lizeoa aitzindaria izan da, bide malkartsuak zabaldu behar izan ditu gaur egun ezagutzen den Lizeo izatera iritsi bitartean. Bai gurasoek, bai irakasleek, eta neurri batean ere haurrek, bazuten apustu garrantzitsua egiten ari zenaren kontzientzia. Kalitatezko heziketa ziurtatu behar zen, beste inongo inolako eskolari ezerekin inbidiarik izango ez zion ikastetxea. Lizeoaren ahalegina onuragarria izanez gero, gainontzeko ikastolentzat ere baliagarri izango zen. Porrotaren beldur edo mamurik, berriz, behin ere ez zen sumatu. Bazen lanak bere fruitua emango zuen uste sendoa. Eta halaxe izan zen.

Hiru zutabe nagusiren baitan oinarritu zuen zuzendaritzaren eginbidea:



Ikastolak oso gogoan izan zituen Mari Karmenek Gasteizen Hezkuntza zuzendari izan zen garaian. Argazkian Santo Tomas Lizeoaren kokagunea ongi antzeman daiteke

1. *Etengabeko lana.* Mari Karmenentzat Lizeoan ez zegoen ordutegi mugaturik, goizean goiz ikastolara joan eta beranduko orduak arte bertako lanean emango zituen ordu guztiak. Nahiz eta atsedena hartzen ahalegintzen zen, asteburuetan etxerako lanak ere eramane ohi zituen askotan.
2. *Elkarlana.* Lanerako prest zeuden irakasle kideekin sustatutako elkarlana. Geroxeago aipatuko den moduan, Mari Karmenek argi ikusten zuen bere lana taldean bideratu beharrekoa zela. Ez zen bakarka jarduteko jaioa. Horregatik, jakin zuen irakasleekin talde trinkoa osatzen.
3. *Gurasoen partaidetza.* Zuzendariaren iritziz, eskolak ez zuen gurasoen eginbidea ordezkatu behar, ez eta heziketaren erantzukizuna arindu ere. Gurasoen partaidetza aktiboa eta eraginkorra nahi zuen Mari Karmenek ikastolan. Horregatik, gero ikusiko dugunez, su eta gar ahalegindu zen guraso taldea sendotzen.



Eraikuntza lanak erabakigarriak izan ziren Santo Tomas Lizeoaren etorkizunerako

Homologazioa ezinbesteko

Homologazioa lortzea derrigorrezkoa zen ikastolaren etorkizunerako. Haurrak hezte ez zen aski, kalitatezko irakaskuntza lana erakustea ez zen nahikoa. Neska-mutikoen eskolatzeko liburuak eta legepeko gainontzeko agiriak behar ziren jarraipena ziurtatuko bazen. Oztopoz jositako bidea zen, bihurgunez betea.

Mari Karmenek, ondoko hiru esparruok bideratu behar izan zituen, besteak beste:

—Diruz urri zebilen ikastolak aurrez aurre zeuzkan erronkei erantzuteko. Ur handietan sartu beharra zegoen aurrera egingo bazen. Arestian aipatutako elkarrizketan, esaterako, ongi nabarmenarazten du hori Mari Karmenek. Garai hartako 25 milioiko zorretan sartu eta gero honela zioen: «Momentu honetan xoxik ere ez dugu. Oso kezkatu gaude. Herri guztiak lagundu beharko du. Bestela ez dakit nolaz moldatuko garen. Bi aurrezki kuxak hamalau milioi eta erdi eman dizkigute, kre-



Ekologiarekiko sentiberatasuna landu du Santo Tomas Lizeoak. Neska-mutilak zuhaitzondoak landatzen

- dito bezala. Beste amar milioi pasa horiek nolaz bila? Beraz ur handitan sartu gara».
- Irakasle euskaldunak, tituludunak, behar ziren. Ez zen erraza. Ikastola bera legepean ongi kokatu, homologatu, beharra zegoen. Lizeoan ere bazen horren kezka. Aitor dezagun, garai hartako hezkuntza administrazioarekiko harremanak ez zirela batere errazak. Frankismoaren diktadurapean eraikitako administrazioa zen. Hala ere, gure zuzendaria saiatu zen diplomaziaz alde ezkor horiek guztiak bere aldera jartzen. «Formación del Espíritu Nacional» delakoa, adibidez, agintarien esaneko irakasleen bidez irakatsi behar zen. Santo Tomas Lizeoan aipatu gai hau irakasten zuen maisua izugarri ondo integratu zen eta baita lagundu ere homologazioa lortzen, ikastolaren aurka izan zitezkeen zurrumurruek itzaltzen. Beste batean eskulanak irakastera etorritako irakaslearekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Irakasleen oinarritzko agiriak legepean bideratu ahal izateko, Donostiako institutuen laguntzaz baliatu ziren ikastolan. Horretara iristeko, hamaika saio egin behar izan zuen Mari Karmenek.
 - Irakasleen lan moldeak finkatu eta antolatu beharra. Artean, ikastola gehienak txikiak ziren, nolabait esanda, familia giroan edo, lana egiten zutenak. Lizeoa, ordea, hazten ari zen, irakasleak ugaltzen, batxilergoa ere bertan zuen... Zuzendaritzari taxu sendoa ezarri zion.

Norabideari jarriki

Gainontzean, lizeoaren bilakaerari begira, bistan zen donostiarrek eta ingurutakoek gero eta gehiago miresten zuten ikastola zela. Horren lekukoa da ikasleen kopuru aldetik izan zuten hazkundera. Lizeoaren izenak eta izanak familia asko erakartzen zuen. Hamabi urtetik gorako gaztetxoentzat zabaldutako bideak ere zer ikusi zuzena izan zuen. Hau guztia, jakina, kudeatu behar izan zuen zuzendariak.

Esan beharra dago Mari Karmenek ikastolaren eginbideari buruzko ideiak oso argi zituela. Lizeoaren eginkizunaz Errialdek egin dako galderari hauxe dio: «gure hau ez da beste ikastetxeek berezten. Denak bezalakoa da. Baina badu zerbait berezia: ikaslea euskal kulturaren hezitzea du, hain zuzen, bere helburua. Haurra gizon egin dadila, baina gizon euskaldun egin dadila». Bere ikuspegia gehiago zehazteko aukerarik ez du galduko. Honela dio jarraian emandako erantzunean: «lehen bidea, eta garrantzitsuena, euskara irakastea da. Euskal kultura ezin daiteke euskararik gabe uler. Baina euskara irakastea ez da aski. Guk, gainera, horrekin batera egin behar duguna, haurra euskal kulturaren jabe egitea da, gure Herriaren historia, ohiturak, gaurko euskal gizarte arazoak jabe egitea, alegia... Guk gizon-emakume euskaldunak egin nahi ditugu».

Hirurogeigarren hamarkadaren amaieran euskal gizartearen gori-gori zegoen, belaun-



Batxilergoko lehen urteko lagunekin. Lehenengo ilaran, eskuinean dagoena da Mari Karmen. Lizeoan hamaika ahalegin egin zuen Ertaintetako Irakaskuntza bertan sendo zedin

dien arteko etena sumatzen zen. Euskaldun berdin fededun binomioa gaitutuz, hiri giroan irabaztekoa zen euskararen aldeko apustua, beste hizkuntzen antzera normalizatuz. Ez zen hura arantzarik gabeko arrosa, euskararen ortografiaren inguruko gorabeherak, esaterako, hainbat haserre ere sortu zuten euskaldunen munduan. Honela agertzen digu Santos Sarasolak urtetan zuzendari izan eta Mari Karmen oso gertutik ezagutu zuenak: «Lizeoak ez zuen arazo handirik izan gai honetan nahiz eta liskar pertsonalak sortarazi. Irakasleok onartua genuen —salbuespenen bat izan ezik—,

Euskaltzaindiak erakutsitako bidetik aurrera egitea eta gurasoek ere bai orokorrean. Gurasoen artean izan zen bat edo beste beren seme-alabei liburuko “h” guztiak ezabatzeko agintzen ziena; “h”ren erabilera bihurtu zen, azkenean, liskar eta arazo. Gurean, ez zuen eraginik izan ikasleekiko lanean. Guk geuk ere, Mari Karmen buru zela, lasaitzeko eta bakea egiteko bidea hartu genuen».

Arazoak arazo, Mari Karmenek ez zuen aurreikusitako norabidetik aldendu nahi. Heziketa zuen gogoan, askatasunean eta elkarriketa giroan mamitu eta garatu beha-

rreko heziketan. Honelako aitorenak jaso dizkiogu aipatu elkarrizketatik: «Pundu hau oso inportantea da. Guk ikastetxe honetan diktadura antzeko zerbait ezarri genezake eta dena ordena izugarri batetan egingo litzake. Baina ez genuke gizonik egingo. Oso neketsua izan arren, elkarrizketan hezi behar da haurra. Honek eragozpen gogorrek dauzka baina ez dago beste biderik. Haurrak pentsatu egin behar du eta pentsatzen ikasi behar du. Horretarako beste biderik ez dago: elkarrizketa. Berririo esango dizut, zaila da, baina bide hori da egokiena».



Askatasuna oinarri

Askatasuna eta elkarrizketa aipatu dugu eta halatsu jokatzeko asmoa erakusten du ideologiari dagokionez. Ez du inongo talde edo ideologiaren morrontzapean Lizeoa ikusi nahi. Honela mintzo zaigu: «Horrengatik ez dugu ideologia konkretu edo zehatz baten menpean egon nahi. Pentsa-molde zabal batetan hezi nahi ditugu haurrak. Guk ez dugu ez era itxi bat ezarri nahi. Guk honi helduko diogu. Bestela ez genuke haurra askatasun batetan heziko. Gure haurra ez litzateke nor izango, txoriburu bat baizik». Antzeko erantzuna jaso dugu Santos Sarasolaren ahotik: «Garai hartan zailena gertatu zitzaion guraso taldeen ikastola kontrolatu nahia —bakoitza bere ikuspegi politiko, sozial eta erlijiosotik ari zela—. Mari Karmenek, bere aldetik, pluralismoari eutsi nahi zion irakas-kuntza euskalduna eta gizakoia eskainiz. Zenbaitetan batzarrak gatazkatsuak gertatu baziren ere, Gestio Batzordeak edo Juntak nortasun eta oreka handiko gurasoz osatuak zeuden eta egoera kontrolatzen zen, ikastolaren barneko hezkuntza-lanari zegokion arloan. Gurasoen talde zabala izan zen hasiera

Itziar eta Mari Karmen ahizpak. Itziar ere urtetan Santo Tomas Lizeoko bulegoetan aritu zen lanean

haietan ikastola indartzeko laguntza nagusia. Oso ondo moldatzen zen guraso haiekin eta konfidantza handia sortarazten zien beste-tik». Testuinguru honetan ez da batere harritzekoa pedagogia hainbat puntu garatu nahi izatea: eskola mistoa, euskalduna, gurasoen partaidetzaz baliatuko zena, irakasleen talde-lana sustatuko zuena, eraginkorra... Villar Palasik 1970ean martxan jarritako erreforma begi onez ikusten zuen, besteak beste, ikasleen partaidetza bultzatu eta arlo akademikoa zein giza formazioa uztartuta lantzeko aukerak ematen zituelako.

Kezka iturriak nonahi

Mari Karmenen garaian zeinen arretatsu jokatu behar zen ikusteko, ondoko adibidea argigarri gertatuko zaigu. 1971tik aurrerako homologazio espedienteak ondo bete eta oso-osorik bidali izanagatik, beti paperen bat falta zela konturatu ziren lizeoan. Esku beltzen bat zebilela tartean espedienteak nahasten. Honek, jakina, paperak berriro eramane beharra eskatzen zuen, atzerapena, endredua... Orduan hartu zen paper guztien kopietan zigilua eskatzeko erabakia.



Madril inguruko mendietara irtenaldia egiteko aukera ez zuen galtzen Mari Karmenek

Handik aurrera paper guztiak zuzen entregatu zirenaren froga eta guzti gordetzen ziren. Akabo orduan era horrelako problemak.

Hezkuntzako ikuskarien bisitek ere kezka latza sortarazten zien ikastolei, eta lizeoa ez zen salbuespen. Ikusi behar zen haurrek nolako argitasunez erantzuten zuten. Haietako bisita batean, 9 urteko haurrari galdetu dio ikuskariak soberania hitzak zer esan nahi ote zuen. Erantzunak ez zuen nonbait ikuskaria asebate eta berehala bota zuen: «estos alumnos saben poca lengua española...».

Kezkak eta disgustuak etxe barruan ere sortu izan zitzaizkion Mari Karmeni. Ez dakit seguru zein urtetan izango zen, 1973an, 1974an edo 1975ean agian. Anoetan Espainia mailako atletismo txapelketak jokatzen ziren eta baita lizeokoek txapelketa irabazi ere. Iritsi da sariak banatzeko unea eta hor non konturatzaren diren, frankismoaren agintarien aurrean, jasotako dominetako zintak gorri-horiak direla. Bertan su eman eta zintak erre zituzten. Pentsa Mari Karmen zuzendariarentzat nolako egurkada! Pentsatzekoa da ahalegin biziak egin beharrak izango zituela lizeoak zigorrik jaso ez zezan.



Fede bizitzak eta bere garaian hartutako ardurak harremanak jende askorekin, eta aldi berean desberdinarekin, lantzeko aukera eman zion Mari Karmeni



Candelario kanpalekuan bi lagunekin

Donostiatik Gasteiza

*M*ari Karmen Alzuetak hain maitea zuen lizeoa utzi eta sortu berria zen Eusko Kontseilu Nagusian lan egiteari ekin zion horrela eskatu zitzaionean. Autonomiaren ibilbidean lehen urratsak egin beharrak zeuden eta irakasle donostiarra buru-belarri murgildu zen Carlos Santamariaren esanetara eginbide berri honetan. Guztia eraiki beharra zegoen.

Lehen urrats haietan Kontseilu zen hura, ondoren, hezurmamituz joan zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Es-

tatutuan aurreikusitako eskuduntzak ziurtatu eta mamitu beharrak zeuden. Eusko Jaurlaritzan, Pedro Migel Etxenike hezkuntza sailburu zen hartan, Mari Karmen Alzuetari egokitu zitzaion gurdi hartatik tira beharra. Ez zen bera bakarrik izan, gertuan zeuzkan Javier Retegi sailburuordea eta Xabier Agirre bezalako lagunak.



Salamancako Unibertsitatean Kimikaren alorrean lizentziatura eskuratu zueneko oroigarria. Azpimarratzekoa da garai hartan, zientzietako ikasketa eremuan, emakumeak askoz gutxiago zirela gizonezkoak baino

Ibilbide aldapatsua

Javier Retegiren esanetan, hezkuntzari zegozkion eskuduntzak eskuratzeko negoziazioaren ibilbideari heldu zioten. «Garbi ikusten genuen hezkuntza gure esku izan ezean, ez genuela aurrerapausorik emango, Madrilek bidalitako enkarguak joan-etorrian etengabe biltzera behartuko gintuela. Ahalmenak eskuratu beharra zegoen.»

Alde batetik, etxeko lanak ondo eta txukun egin beharrak zeuden, egoerak aztertu, legeak arakatu, irtenbideak zehaztu. Bestetik, Madrileko gobernuak ez zuen zenbaitetan negoziazio prozesua erraztu nahi izan. «Pazientzia, negoziazioetan etenik gabe irautea eskatzen zuen egoera hark» Retegi jaunaren hitzetan.

Eusko Jaurlaritzan, eta bereziki negoziazioetan jardun behar izan zutenek, bi helburu

zituzten: eskuduntzak legearen babes osoarekin eskuratzea batetik, eta finantziatorako behar zen dirua, bestetik.

Legearen bideari zegokionez, gizarteak behar zuen sistema aurreikusteko berariazko hausnarketa saio sakonak egin behar izan zituzten. Ez zegoen denbora galtzerik, ahalik eta lasterren pausoak emanaz aurea hartu beharra zegoen, baina, aldi berean, tentuz eta zuhurtzia handiz. Mari Karmenen ekarria fase honetan oso garrantzitsua izan zen, erabakigarria, ongi baino hobeto ezagutzen baitzuten hezkuntzaren antolaketa premiak, garbi zeukan ibilbidearen azken helmuga.

Hau dena martxan jarri eta mende laurden batera, garai batean pentsaezinezko jauzia egin dela bistan da. Hona hemen, 70eko hamarkadaren amaieran bistaratzen zen egoera:

- Hezkuntzaren Administrazioan pertsona baliabideen eskasia. Hasiera hartan Carlos Santamaria, Mari Karmen Alzueta eta beste bizpahiru lagun baino ez zeuden. Ez giza baliabiderik, ez oinarrizko azpiegiturarik, guztia zegoen egiteke. Sare informatikoa bera, hasiera hartan, gobernuko azpiegiturarekin bateragarria izan zitekeen sistema behar zen datuak zuzen eskuratu ahal izateko.
- Legearen oztopoak. Euskal hezkuntza sistema eraiki ahal izateko legeak aldatu beharrak zeuden. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat eskolatan, esaterako, zenbait



Aian ateratako argazkia. Mari Karmenekin batera, Maria Angeles Lizarralde eta Juanita Bereziartua

postutan euskara menderatzea ezinbestekotzat jotzen zen arren, estatuak bere ikuspuntu berdintzaileari eusten zion. Ez zegoen araudia aldatzeko prest. Irakasle berriak inguratzeko deialdiak, hezkuntzara oposizio bidez iristeko eta abar, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako deialdien arabera bideratu nahi bazen ere, Madrilek ez zuen horrelakorik onartzen.

- Beste ahalegin bat egin zen, estatuko eskola bere horretan utziz, bertako sare publikoa sortzeko. Honek, jakina, bazituen bere arriskuak, sare publikoa bikoiztearena, esaterako. Mari Karmen ez zen sare publikoa bikoiztearen zale, baina, bestetik,



Mari Karmen langileen erromesaldian Zaragozan



Mari Karmen eta Itziar ahizpa beste bi lagunekin

garai hartako baldintzetan sare publikoa euskalduntzea ezinezkoa zela konturatu zen. Besterik ezean, euskal eskola publikoa kokatzeko eta babesteko EIKeren aukera ere zabaldu zen. Jaio bezain laster, ordea, auzitara eramana izan zen. Konstituzio Auzitegiak aurka egin ez bazuen ere, ez zuen jarraitzerik izan, besteak beste, gerora Eusko Jaurlaritzak bertan behera utzi zuelako.

—la erabat erdalduna zen irakaskuntza publikoa euskalduntzeko bertako irakasle euskaldunak behar ziren, bertako bitartekoak, testu-liburu, material eta abar. Mari Karmen Alzuetaren lana laburbilduz, honela dio Javier Retegik: «Hura langile nekazina zen, azkarra, ideiak argi izan ohi

zituena, elkarrizketarako gaitasun handikoa, jende askorekin erlazionatzen zena. Hura, hitz batean esanda, gure taldearen ardatza zen».

—Tituluaren jabe ez ziren irakasleekin zer egin? Baziren lege kanpo lanean aritu ohi ziren irakasleak, titulurik ez eta, irakasteko baimenik ez zutenak. Egoera normalizatzeko, gauzak bere onera ekartzeko, behar zituzten tituluak eskuratzeko, aukerak zabaldu zituzten. Gipuzkoako Apaiz Ikastetxean eta Eskoriatzako irakasle eskolan bultzada izugarria eman zitzaion. Irakasleek ere ahalegin handia egin zuten titulu eskuratzeko ikastaroak jarraituz.

Ikastolak ere gogoan

Etxean ongi probatua baitzuen, bazekien Mari Karmenek ikastolen egoeraren berri. Diru premia gorrian, bitarteko handirik gabe, ikuskaritzekin etengabeko sokatiran. Irakasle dezente inongo titulurik ez zuena...

Mari Karmenek ikastolen egoera bideratze-ko aukera gisa ikusten zuen momentu berri hura. Gizartean errotutako eskolak nahi zituena, herriaren eta gizartearen nortasun, izaera eta egoera bereganatuko zuen eskola. Nolabait esanda, herriaren bihotz taupadak biziko zituen, herri bizitza arnasberritu zezakeena. Ikuspuntu honetatik, haren hautua garbia zen: publikotasunaren testuinguruan kokatzen zuen ikastolaren etorkizuna.

Hala ere, korapiloa askatzen buruhausterik izan zuten Mari Karmenek eta lan taldeak. Hemen ezagutzen zen eskola publikoa Ma-

drilen ardurapean hazi eta zabaldutako eskola zen. Bazirudien estatuaren ikuspegia eta Euskal Herritik ontzat eman nahi zena, ez zetozeela bat. Estatua zentralista izanik, eta hezkuntza haren interesetan erabiltzen zelarik, nola uztartu bertako Euskal eskola Publikoarekin?

Estatuaren sare publikoa jadanik oso zabaldua zegoen, zaila zen bertako euskal sare publikoa garatzea. Lege baldintzak, berriz, ez ziren nolanahikoak. Bide estua zen hura aurrera egiteko. Ezinezkoa zen estatuko sarea aldarazi eta bertako egitea.

Ikastolen etorkizuna publikotasunaren bide-tik garatu ahal izateko, nola jokatu? Hausnarketa eta lan izugarria egin eta gero, garbi konturatu ziren, Mari Karmen bera barne, lege sistema harekin ezinezkoa zela publikotasunean aurrera egitea.



Mari Karmenek, oinak lurtean zituela gora begiratzen bazekien. Barru lasaikoa zen

Hizkuntzaren normalkuntza eta irakaskuntza

Irakaskuntzaren ikuspuntutik, garrantzi handikoa izan zen Euskaltzaindiak burutu zuen euskara batzeko prozesua. Sortu ere hartarako sortu zen, besteak beste, Euskaltzaindia: euskara batu bat sortu eta bultzatzeko. Nahiz eta hainbat ahalegin egin zen han eta hemen, Arantzazun 1968ko bilkura hartan jarri zituen oinarriak Euskaltzaindiak. Euskal Herriko eskualde desberdinetan bizi ziren euskararen dialektoak, are gehiago, bailaraz-bailarako ñabardurak. Ahoz nabarmenak zi-

ren tokian tokiko ezaugarriak. Euskaraz idazterakoan, berriz, ez zen irizpide baturik. Hau guztia, jakina, euskararen kaltetan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan argi jasotzen denez, bada Euskaltzaindiaren esanetara lan egiteko borondate politikoa. Honek, jakina, aldizkari ofizialaren publikazioan eta gainontzeko argitalpenetan eragin zuzena izango du. Baita eskoletako testugin-tzan eta materialen sorkuntzan ere.

Estatutua martxan jarri zenerako gaindituak zeuden, nolabait, euskara batuaren inguruan, eta batez ere «h» hizkiaren erabileran, sortu-



Viteri Haur Eskolan. Mari Karmenek ongi asko zekien euskara normaltzeko apustua eskolaz kanpo ere egin beharra zegoela

tako liskarrak. Eskerrak! Gainontzean ez zen aurrera egiteko bide egokirik izango. Esan gabe doa, euskara batuaz hitz egiten dugunean euskara idatziaz ari garela. Ahozkoak, irakaskuntzan esaterako, tokian tokiko ezaugarriak onargarri eta mesedegarriagoak baitira.

Testuinguru honetan, Euskal Autonomia Erkidegoa 1979an onartu eta gero, euskararen normalkuntzaren ikuspuntutik garrantzi handikoa izan zen 10/1982 Oinarrizko Legea euskararen erabilera arautu zueneko. Normalkuntzaren aldeko hamaika erabakiren iturburu izan baita azken aipatu legea.

Legea bere osotasunean aztertuko ez bada ere, irakaskuntzari dagokionez, argi eta garbi jasotzen da herritarrak euskaraz zein gaztelaniazko irakaskuntza jasotzeko duen eskubidea. Horrez gain, derrigorrezko eskolaldian ikasleak benetako elebidun izatera iristeko duen eskubidea ere azpimarratzen da.



Misiolarien Institutuan kargudun izanik, irteerak ere egin behar izan zituen. Toursera eginiko irtenaldi batean eginiko argazkia


Legeak lege, hezkuntza sisteman hau guztia gara zedin, erabaki zehatzak hartu ziren Mari Karmen hezkuntza saileko zuzendari zereginetan aritu zen garaian. Horren lekukoa da, esaterako 138/1983 Dekretua hezkuntza ereduaren ezarpena arautzen duena. Euskararen legea abiapuntu izanik, geroztik hain ezagunak izan diren A, B eta D ereduetan ikasteko aukera eskaini zitzaion hiritarrei.

Esan beharra dago, Haur Hezkuntzan eskolatzen direnetatik hasita, gero eta gehiago direla B eta D ereduetan ikasten duten neska-mutilak.

Mari Karmen Alzuetak zuzentzen zuen taldeak jakin zuen irakaskuntza euskalduntzeko oinarriak eta mugarriak ipintzen. Hasieran aipatu den irudia erabiliz, jakin zuen irakaskuntzaren katedral erraldoia eraikitzeko martxa jartzen.



Jose Juan eta German anaiekin



origaiztoko istripua!

Bai, zorigaiztokoa, benetan, 1983ko abenduaren 16ko hartan gertatua!

Amarako institutueta batean bilera izan zuen. Lan saioa amaitu zuenean, Karlos Garaikoetxea lehendakariarekin telefonoz hitz egin ondoren, Valeriano Yarza lagun zuela Familia Santuaren eliza inguruan aparkatua zegoen autora zihoala, kalea zeharkatzean moto batek jo zuen. Larriki zauritu zenez, ahalik eta lasterren, erietxera eraman zuten. Ondorengo egunetan ez zion egoera hari buelta ematerik izan. Handik bederatzi egunera, abenduaren 25ean, Eguberri egunean hain zuzen, joan zitzaigun mundu honetatik



Baserri giroa, herri txikien izaera eta izadia ezagutzeko aukera izan zuen. Mari Karmenek bi urte zituela, jolasean. Ezustean harrapatuko gintuen heriotzak

Mari Karmen Alzueta. Zeinek esan Misiolari Sekularren Institutuan garai batean hainbeste kilometro errepidean egin zituen emakumeak, Gasteiza zein Madrilera etengabeki joan-etorriak egin zituen andreak, horrela amaitu behar zuenik! Pena eta nahigabe franko sortarazi zuen heriotza hark!

Omenaldian jasotakoak

Ikastolako guraso, irakasle eta ikasle ohiek oso gogoan zuten Mari Karmen eta, hil eta handik urte betera, omenaldi berezia eskaini zioten hainbat urtetan jo eta su lanean eza-gutu zuten Santo Tomas Lizeoan. Lizeoko kide zen Jose Mari Aranaldek eman zuen meza. Ondoren jaialdi hunkigarria antolatu zuten ikastolako irakasle, ikasle eta gurasoek: haur kantarien saioa, eskusoinuz eskainitako emanaldia, bertsoak, guraso, irakasle zein ikasle ohien esker oneko azalpenak...

Omenaldi horretan, Mari Karmen Alzueta-ri esker ona erakusteko eta berarenganako oroitzapena iraunarazteko, Karmele Alzueta saria jarri zuten martxan. Lehen saria, jaialdi horretan bertan familiari eskaini zitzaion.

Mikrofonoaren aurrean hitz egin zuten guztiek, aho batez eskertu zuten Mari Karmenen lan kementsua, pazientzia, helburu handiak lortzeko zuen gaitasuna baina, aldi berean, helburu txikiak, eguneroko jardunean lankideekin zer ikusia izan zezaketen helburu txikiak, gogoan hartzen zekiena.

Lankideen aldetik, esaterako, agintzeko erantzukizunari eutsi izana eskertzen zioten Mari Karmeni. Lankideen laguna zen, behin ere apurtzen utziko ez zuen adiskidetasuna zainduz. Bere kargua zela eta, norbaiti zerbaitegatik kargu hartu behar baldin bazion, ahalik



Mari Karmenen heriotzaren oroigarritzat argitaratutako orria. Oso egun seinalatua, 1983ko Eguberri egunean. Orriaren atzeko aldean *Aita gurea* dakar

eta erarik egokienean bideratzen saiatuko zen inor mindu ez zedin.

Jose Mari Aranaldek jaialdian kantatutako bertsoak dira Santo Tomas Lizeoko familiaren sentipenen lekuko. Hona hemen bertan

kantatu zituenetatik aukeratutako bertso
pare bat:

Badakizute hemen
gaur gaia zer dutan,
gaur gaia zer dutan,
Mari Karmen Alzueta
daukagu burutan.
Hamaika lan egina
gure Lizeo hontan,
duela urte bete
galdua istriputan,
geroztik hemen gaude
guztiok damutan (bis).

Ondorengo bertsoan uztarturik uzten ditu
Mari Karmen eta Lizeoa:

Mari Karmen Alzueta
eta Lizeoa,
eta Lizeoa,
egina gelditzen da
bien elkargoa.
Kondaira bera dute
berdina gogoa,
euskaradun herria
lantzea arloa,
hori da guretzako
nahi dudana geroa (bis)

Oharrak

¹ Elkarrizketa, berez, batu aurreko ortografiaz ageri da.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maite Alzuetari eta familiari
- Miren Jone Azurzari
- Xabier Retegiri
- Santos Sarasolari
- Mikel Atxagari

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2370-7 (Lan osoarena)
84-457-2374-X

L.G.: BI - 3287-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística